



## “Bullying”a

**Gai honi buruzko kezka nabaria zenez hainbat ekimen egin ziren gure eskualdean iaz, adibidez, agresibitateari buruzko mintegi bat, "iraintzea hitzez jotzea da" izeneko erakusketa ikasleekin eta gai horren gaineko tertuliak liburutegietan, gurasoentzako hitzaldiak, eta abar... Orain berriro ere pil-pilean daukagu gaia, hori dela eta hona ekarri nahi izan dugu guztiok gehiago jakiteko horretaz.**

**Hitz berria baina gertaera zaharra. Zertan aldatu da lehendik hona?**

Aldatu dena gure ikuspuntua izan da. Giza eskubideen aldeko kulturari esker, ohikoak ziren pertsonen eskubide eta duintasunaren kontrako portaera batzuk berraztertu egin dira hainbat esparrutan: lanean (mobbing), etxean (genero indarkeria) edo eskolan (bullying)

**Noiz esan daiteke bullyinga gertatzen ari dela eta ez ikasleen arteko liskar, haserrialdi "normalak"?**

Errepikakortasuna eta iraupena dira gakoak. Bullyinga ez da behin gertatzen, ezta ere istilu bakar bat, alderantziz baizik; errepikatu izaten dira eraso motak, protagonistak, momentuak eta lekuak. Erasotzailea biktima baino indartsuagoa da, ez fisikoki bakarrik, biktima nahiko baztertuta egoten da ikasle taldean ere. Eraso egiteko momentuan ez da pertsona heldurik egoten inguruan eta biktimak, eta egon baldin bada, lekukoek ere presio izugarria daukate gainean isilpean gordetzeko. Gainera, nahita egindako erasoak dira. Ez dira bromak ezta ume kontuak ere.

**Gaur egun gehiago gertatzen direla esango zenuke ala, behar bada, beste era batera?**

Orain ez dira kasu gehiago lehen baino, baina orain ostera, garrantzia ematen diegu horrelako portaerei.

**Zer da bullyinga? Zeintzuk dira ezaugarri nagusienak? Bullying era desberdinak al daude?**

Honela definituko genuke: ikasle batek edo batzuek menpean hartzen dute beste ikaskide bat eta bere kontra jarduten dute jo ta su, maiz eta luzaroan. Eraso desberdinak daude: fisikoa (jotzea, gauzak apurtzea edo lapurtzea...) ahokoak (irainak, goitzenak...) soziala (bazterketa) eta beste horiekin guztiekin batera agertzen da eraso psikologikoa, pertsona hori erabat menperatuta eta lur jota ikusi arte. Biktima ez dute aukeratu betaurrekoduna edo lodikotea delako, baizik eta psikologikoki ahula delako eta taldearen babesik ez daukalako.

**Zergatiak milaka egongo dira baina garrantzitsuenen artean?**

Erasotzailea izatea ez dator ez familiaren maila ekonomiko jakin batetik, ez gurasoen ikasketa mailatik eta ez da ere auzo jakin batean bizitzearen ondorioa. Gizarteak zabaltzen duen eredu nagusia indartsuenak goraiatzea da, ahulenak menperatzen dituzten arren. Telebistaren eragina ere ukazina da. Eskolako ikasturteak 800 ordu ditu, baina denbora horretan umeek eta gazteek 1.400 ordu ematen dituzte telebista aurrean, gutxienez 1.200 hilketa edo indarkeria ekintza larriak ikusten dituztelarik. Arrazakeria eta desberdina denarekiko tolerantzia eza ere kaltegarriak dira. Taldean sortzen diren dinamikek ere ez dute batere laguntzen. Ikaskide ahula menperatzea besteak txundituta uzteko modua izan daiteke, baina baita abisua emateko ere, hurrengoan izan daitezke eta. Gainera taldeko ekintza izanda denen artean erasotzen dutenez, inork ez du ardurarik bere gain sentitzen. Baina ez da hori bakarrik, biktimak merezi duela uste dute.

**Fenomeno honen aurrean guztiok daukagu erantzukizuna baina gurasoak, zer? Zein da euren funtzioa honetan? Zerk eragiten du errezago eraso bat?**

Heziketa eta baloreak lantzea ezin da eskolaren esku utzi. Gurasoek maitasun nahikoa ematea, portaera ezegokiei mugak argi jartzea eta tratu txarrak edo adibide txarrak ez ematea garrantzitsua da. Baina etxean dena ondo eginda ere, norberaren ezaugarri psikologikoen eragin handia izan dezakete.

**Umeak badiosku "hark jo egin nau" "orduan, zeuk be bai jo" erantzun izaten diogu guk. Inork ez du berea zapalduta ikusi nahi baina zapaltzaile bezala ikusi nahi al ditugu gure umeak?**

Ez, baina ez da erraza hori egiten ari direla onartzea. Besteak menperatzeko joera badu, nahi duena beti lortu nahi badu, anai-arrebak edo lagunak kezkatzen badira, beren indarkeria ekin-tzetaz harro hitz egiten badu, adi egon behar dute gurasoek, seme-alaba erasotzailea izan daiteke eta.

**Zer nola aurre hartu fenomeno honi? Familiarentzako aholkurik ba ote dago gure seme-alaba biktima izan zein erasotzailea izan?**

Seme-alaba erasotzailea bada, gurasoek argi utzi behar diote portaera hori erabat gaitzesten dutela, baina baita ere maite dutela eta bere laguntza guztia izango duela egoera horretatik ateratzeko. Ikastetxearekin harremanetan jarriko

dira egoera bideratzeko. Seme-alabarekin adostu behar dute eman behar diren pausuak: erasoak gertatzen diren lekuetatik urrun egoten saiatu behar da. Erasoak beste batzuekin egiten baditu, pertsona horiekin ez ibiltzeko ahalegina egin beharko du. Familiak lagun berriak edo aktibitate positiboak aurkitzen lagundu behar dio.

Seme-alaba biktima dela antzemateko zantzuak hauek izan daitezke: ubeldurak agertzea, arropa zein eskolako materiala apurtuta ekartzea, ohi baino diru gehiago eskatzea, portaera edo ohitura aldatetako, lo egiteko arazoak, eskolara joan nahi ez izatea, eskolara ez joateko gaixorik dagoela esatea, eskolara ez joatea, lagunei buruz hitz egin nahi ez izatea. Familiak susmoak baditu, ikaslearen anai-arrebekin edo lagunekin hitz egin dezake. Egoera konfirmatzen badute ez du inoiz erasotzailearengana edo erasotzailearen familiarengana zuzenean joan behar. Eskolara joan behar du, tutorearekin hitz egin eta egoera bideratzen lagundu. Kasu honetan ere familiak seme-alabari bere babesa eta maitasuna adierazi behar dizkio eta berarekin adostu eman beharreko pausuak. Erasoak gertatzen diren tokietatik urruntzea edo toki horietan beste norbaitekin egotea, adibidez, oso gomendio onak dira. Biktima saiatu behar da sentitzen duen mina erasotzaileen aurrean ez azaleratzen, horixe baita beraiek nahi dutena, bera sufritzen ikustea. Biktimak jakin behar du bera ez dela erruduna eta esaten diotena haien inbidia adierazle baina ez dela. Kasu honetan ere familiak lagundu egin behar du lagunak bilatzen, ikaskideen babesa oso garrantzitsua baita.

Lekukoek familiarekin ere badute zereginik. Portaera bidegabe horiek onartezinak direla esan behar diete, eta horien aurrean ezin dela ezikusia egin. Ikasi egin behar dute heldu bati gertatzen denaren berri ematea ez dela "txibatoa" izatea baizik eta sufritzen ari den pertsona bati laguntzen ari direla eta erasotzaileari bere portaera aldatzeko aukera eman behar zaiola. •

